



# Lasarte-Oria *guztiona*

Denok batuko gaituen irudi berri bat

Una nueva imagen para unir a un pueblo.



LASARTE-ORIA  
UDALA - AYUNTAMIENTO

# telefono interesgarriak teléfonos de interés

Bulego orokorra

943 376055

Udaltzainak

943 362442

Alkatetza

943 376178

Udal-Zerbitzuak

943 376180

Gizarte-Zerbitzuak

943 376179

Kultur Etxea

943 376181

943 376191

Andre Joakina Enea

943 367238

Kiroldegia

943 376182

Enplegu-Dinamizatzalea

943 376183

Euskara-Zerbitzua

943 376184

Idazkaritza

943 376185

Kontu-Hartzaileta

943 376186

Zerga-Bilketa

943 376187

Diruzaintza

943 376188

Obrak eta Hirigintza

943 376189

Epaitegia

943 371629

Euskaltegia

943 361621

Kontsumitzaleen

Bulegoa(KIUB)

943 361605

Zaharren Egoitza

943 366770

UDAL-ZERBITZUEN HELBIDE  
ELEKTRONIKOAK

partehartza@lasarte-oria.org

kultura@lasarte-oria.org

euskera@lasarte-oria.org

emakumezentroa@lasarte-oria.org

gizarterbitzuak@lasarte-oria.org

## Aurkibidea

- 03** ————— **Aurrekontuak**  
Presupuestos del 2013
- 04** ————— **Tokiko sozioekonomia**  
Activar el sector servicios
- 06** ————— **Emakumea**  
El centro cívico
- 08** ————— **Abriendo espacios municipales**
- 09** ————— **Hirigintza - Tximistarreta parkea**
- 10** ————— **Erreportajea**  
  
Udalaren irudi berria,  
La nueva imagen del Ayuntamiento
- 14** ————— **Paneles informativos**
- 15** ————— **Lasarte-Oriako Udala, bai esan?**
- 16** ————— **Laburrak**
- 18** ————— **Agenda**  
  
San Pedro eta Santa Ana Jaiak

## Udal-erabakiak

decisiones municipales

Apirila Abril

- 01** | Kale izendegiaren proposamena onartu zen.  
*Aprobación de la nominación del callejero.*
- 02** | Prozeduran atzera egitea A-39 Teresategi hegoaldea HIEan Plangintzako Arau subsidiarioak puntualki aldatzea onartu zen.  
*Se aprobó el desistimiento del procedimiento en el documento de Modificación Puntual de las NNSS de Planeamiento en el AIU A-39 Teresategi Sur.*
- 03** | Lasarte-Oriako plangintza Urbanistikorako Aholku-Batzordearen erreglamendua aldatzeko proposamena onartu zen.  
*Se aprobó la propuesta de Modificación del reglamento del Consejo Asesor de Planeamiento Urbánístico de Lasarte-Oria.*
- 04** | Frankismoaren krimenen Aurkako Kereilaren Euskal Plataformak aurkeztutako mozioa onartu zen.  
*Se aprobó la moción presentada por la Plataforma Vasca para la querella Contra los Crímenes de Franquismo.*
- 05** | Alderdi Popularrak Lasarte-Orian birziklatzeko zakarrontziak jartzeko eskatzen zuen mozioa onartu zen.  
*Se aprobó la moción del Partido Popular sobre la implantación de papeleras de reciclaje en Lasarte-Oria.*



Maiatza Mayo

- 01** | Udal ordezkariaren izendapena Lasarte-Oriako Andre Joakina-enea Haur eskolako Jarrai-pen Batzorderako.  
*Designación de representantes municipales para la Comisión de Seguimiento de la Escuela Infantil Andre Joakina-enea de Lasarte-Oria.*
- 02** | Behin betiko onespina ematea Hiri-Plangintzarako Arau Subsidiarioetako "A-12 Mirentxu" HEIko Pablo Garaikoetxea irakaskuntzarako ekipamenduaren g.1 partzelari dagokion Xehe-tasunezko Estudioari.  
*Aprobación definitiva del Estudio de Detalle correspondiente a la parcela g.1 del equipamiento docente Pablo Garaikoetxea en el AIU A-12 Mirentxu de las NN.SS. de Planeamiento.*

## Aurrekontuak presupuestos

# Gehien behar dutenentzako egindako aurrekontu xumeak

Aurtengo aurrekontuetan gastu korronteen %20a eta inbertsioen %82a gastu sozialera zuzendu, alokairuzko etxebizitza sozialen alde apustu egin eta Udalerriko garapen sozioekonomikorako partida %161an igo da.



# Activar el sector servicios, activar Lasarte-Oria

El Ayuntamiento de Lasarte-Oria presentará en breve la marca Lasarte-Oria con el objeto de activar el sector socioeconómico del municipio y unificar el comercio, la hostelería y las diferentes empresas de servicios.

Un estudio realizado durante el 2011 para conocer la realidad económica de Lasarte-Oria puso en la pista a los responsables municipales. Los datos revelaban que el 70% de la actividad económica del municipio está dirigida al sector terciario, principalmente comercios, bares y restaurantes y empresas de servicios. Además, en la mayoría de los casos, el 80% según el estudio, se trata de negocios pequeños.

El análisis, realizado gracias a una subvención del Gobierno Vasco señala asimismo el declive de este tipo de negocios, que ha visto como muchos de ellos han tenido que bajar la persiana, desde el 2008. Ante esta situación, el equipo de gobierno puso en marcha un plan para activar el sector, que se plasmó en varias reuniones con los hosteleros, comerciantes y pequeñas empresas de servicios.

La metodología de trabajo ha sido participativa y sencilla, pero a la vez enriquecedora. Durante tres reuniones, técnicos municipales y representantes del sector han intercambiado impresiones con

El 70% de la actividad económica del municipio está dirigida al sector terciario, principalmente comercios, bares, restaurantes y empresas de servicios



un claro y único objetivo: activar el sector, para activar Lasarte-Oria.

En la primera cita, los pequeños empresarios de la localidad tuvieron la oportunidad de exponer sus preocupaciones, inquietudes, quejas, propuestas, etc. En una segun-

da cita, los responsables municipales dieron respuesta a las peticiones realizadas. Y, en la tercera y última reunión, redactaron conjuntamente un informe con diferentes propuestas para activar el sector, propuestas que iban acompañadas de diferentes planes de acción.



LASARTE-ORIA  
TRATU ON BAT  
UN BUEN TRATO

### Marca Lasarte-Oria

Entre las propuestas cabe destacar la elaboración y diseño de la marca Lasarte-Oria, que pretende, por un lado, activar el sector socioeconómico del municipio y, por otro, unificar el comercio, la hostelería y las diferentes empresas de servicios.

La marca será presentada en breve y vendrá acompañada de alrededor de medio centenar de planes de acción, entre los que destacan la elaboración de una Guía Municipal para el comercio y la hostelería, una campaña conjunta para la captación de nuevos socios o potenciar un calendario de ferias y eventos especiales que abarquen todo el año.

Otra de las propuestas presentadas y que más hondo ha calado ha sido la creación de la Mesa técnica del comercio y la hostelería. Una Mesa que, en un principio, seguirá de cerca las propuestas y los planes de acción que se recogen en el informe. La Mesa estará compuesta por técnicos municipales, representantes de Aterpea y La Asociación de Hosteleros de Lasarte-Oria, así como de todos aquellos que regenten un negocio en la localidad y estén dispuestos a participar en la misma.

Marca comercial  
Lasarte-Oria,  
una marca a favor del  
pequeño comercio,  
del buen trato y del  
trato cercano.  
Calidad y confianza.

## MERKATARITZA eta OSTALARITZA Aktibatzeko Plana (50 puntuen laburpena)

### Merkataritza

**Merkataritza eta Ostalaritzaren Udal-gida sortu** (irekiera tramiteak, obrak, terrazak, ordenantzak, eta abar).

**Komertzioen irekiera:** empleo arloko jarraipena eta establezimendu berrientzako diru laguntza. 14.000 euro zuzenduko dira.

**Asoiazionismoa bultzatu:** Aterpeako kide berri bakoitzari 60 euro kuotarentzako. Elkartearen protagonismoa sustatu.

**Formakuntza:** Taldeka eta banaka. Teknologia berriak.

**Lasarte-Oria merkatal marka**

**Publizitatea:** Udal planoa, hiru hilabetero eskuorria.

**Teknologia berriak:** Eskaintzak ezagutzeko APP eta WEB euskarrien aktibazioa.

### Hostalaritza

**Lasarte-Oriako Pintxoen lanketa:** Pintxoen lehiaketa bat antolatu, sukaldari ezagunekin pintxoen karta. Erakusketa gastronomikoen programa.

**Ekitaldi jendetsuak:** Zehaztu estrategia bat bezero berriak lortzeko, ekitaldi jendetsuetara doazenen artean: zaldi lasterketak, kirol lehiaketak, ekitaldi kulturalak.

**Zehaztu errataziozko aparkalekuak:** udal parking berriaren inpaktua aztertu ondoren

### Zerbitzu pertsonalak

**Bertutatako enpresak kontratatzea:** Irizpide hori da-goeneko aplikatzen ari da kontratu txikietan. Egiten jarraituko da.

**Langabetuak:** Lasarte-Oriako enpresen artean zabaldu kontratacioetarako dirulaguntzen eskualdeko plana

**Garraio publikoa:** Hernani eta Lasarte-Oriako autobus linea hobetzeko eskaria Aldundiari. Manttangorri eta Euskotren sustatu.

**Udalerrria promozionatu:** Batez ere Donostian eta Usurbilien, baita eskualde osoan ere

**Aparkalekuak:** Errrotorioa den sistema bat aztertu.

# El Centro Cívico incorporará un servicio de sexología

El nuevo pliego de condiciones prevé cambios en el Centro Cívico de la Mujer, cambios que entrarán en vigor a partir de septiembre y mejorarán ostensiblemente el servicio actual.

El Centro Cívico de la Mujer ofrecerá una nueva imagen a partir de septiembre, en cuanto entren en vigor los cambios que recoge el nuevo pliego de condiciones. Las modificaciones, que se aplicarán progresivamente, pretenden mejorar y profesionalizar el servicio actual. Para ello, técnicos municipales han conocido los servicios de localidades como Donostia, Arrasate, Ermua o Basauri.

La principal novedad está focalizada en el servicio de sexología, que entre las tareas a realizar, deberá informar y asesorar a las personas que acudan al centro. Los técnicos de Igualdad tendrán que redactar un Plan de Igualdad y elaborar un informe que recoja la actual situación de la mujer en el municipio y el papel que desempeña en el ámbito económico, social, cultural, etc.

Desde Servicios Sociales, Inmigración, Cooperación, Empleo y Mujer están convencidos de que estas dos nuevas figuras serán un activo importante para Lasarte-Oria, y en especial para entender mejor y promover relaciones respetuosas de mujeres y hombres del municipio, y que el trabajo de campo que desarrollará ofrecerá pistas para activar una política más justa e igualitaria.

Otro de los cambios que recoge el pliego tendrá que ver con la



formación de los trabajadores del centro, ya que tendrán que acreditar estudios relacionados con los servicios que ofrecerá el centro. Además, deberán estar capacitados para ofrecer el servicio en las dos lenguas oficiales de la CAV.

Los técnicos del Centro redactarán un Plan de Igualdad y tendrán que elaborar un informe que recoja la actual situación de la mujer en el municipio.

## Cambios progresivos

Lo cierto es que el Centro Cívico de la Mujer cuenta con gran aceptación y son muchas las mujeres que acuden a las actividades que organiza el centro, la mayoría de ellas de carácter lúdico. Y que a partir de septiembre se irán acercando a otros más cercanos a la formación, aunque seguirán ofertando actividades lúdicas.

Con este cambio pretenden ampliar el número y el perfil de personas que acuden al Centro Cívico. Un cambio que empezará a partir de septiembre y que se irá aplicando progresivamente.

*“ Larria da Lasarte-Oriaren biztanleria duen herri batek emakumearen egoeraren diagnostiko eta ekintza plan bat ez izatea, beste batzuk hirugarrenean daudenean. Hau izango da gure apustua”*

Azken hilabeteetan asko eta anitzak izan dira gizarte zerbitzuak, inmigrazioa, enplegua, koooperazioa eta emakumea departamentutik aurrera eramandako ekimenak eta Gorka Lizarraga ardurdunari batzuen inguruan galduen diogu.

Lasarte-Oriako komertzioek egoera gogorra bizi dute eta herriko pertsiana asko itxita daude iadanik. Zein neurri hartzen ari zarete honi aurre egiteko?

Lehenik eta behin merkatarietkin bildu gara eta dituzten behar eta lehentasunak helarazi dizkigute. Honen baitan 50 ekimenez osatutako urte beteko programa bat egin dugu eta herriko komertzio berria sustatzeko 14.000€ko partida bat aurreikusi genuenez, irailetik aurrera irekitzen diren komertzio berri guztiei zuzendua egongo da. Bestalde Lasarte-Oria aisi eta merkatalgune bezala ikusteko irudi bateratu bat sortu dugu eta honekin beste hainbat ekimen lotuko ditugu. Gainera, asoziazionismoa bultatzeko laguntzak ere emango ditugu, Udal teknikari bat jarri dugu guzti hau dinamizatzeko eta merkatariaren gida osatuko da, autoenplegarako eskualdeko aholkularitza zerbitzua martxa jarri dugu, larunbat goizak aktibatzeko azoka berezi bat,...

Atsobakargo zaharren egoitzako langileak greban egon ziren denbora luzez. Azkenean lortu zuten Clece empresak hitzarmena sinatzea, zein paper jokatu du Udalak honetan?

Gure eskaera Cleceri argia izan da hasieratik, Udalak kudeaketarako kontratatua du Clece eta greba zela eta, kudeaketa txarra izaten ari zela esan genien, ez geundela haietkin gustora eta langileekin adostasun batetara iristeko gure nahia helarazi genien eta beraien jarrera aldatu zezaten eskatu.

Badira hilabete batzuk hezitzailleen zerbitzua berri- tu eta martxan jarri zenutela. Zein lanketa burutu dituzte?

Guraso Elkarteekin lanketa berezi bat egin da lehenengo urtean kartzelatik atera zen gizon baten harira sortu zen alarma sozialaren ondoren eta eskoletako irakasleekin ere haurren arazoak identifikatzeko lanketa bat burutu da.

Langileek exigitzen zuten dokumentua Aldundiak aurkeztutakoa zen, gu erabat ados ginen eskakizun horiekin eta ulertezina egiten zitzagun Clece langileekin akordio batetara ez iristea. Izen ere, soldatei zegokienez KPlaren igoera eskatzen zuten eta guk urtero igotzen diogu enpresari KPI hori. Horregatik langileei gure babesak eskaini diegu momentu oro.

Atsobakargo egoeraren aurrean

Emakumearen zentro zibikoan aldaketa ugari proposatzen dituzue, besteen artean perfil teknikoago bat bilatzea. Zein da honen helburua?

Larria da Lasarte-Oriaren populazioa duen herri batek emakumearen egoeraren diagnostiko eta ekintza plan bat ez izatea, beste batzuk hirugarrenean daudenean. Lan hau egiteko perfil tekniko bat behar genuen, Berdintasun teknikari bat. Zentroko lana egokia dela deritzogu bertan egiten diren ekinmei dagokionez, emakume pila batek parte hartzen baitute bertan baina hankamotz ikusten dugu. Ikuspuntu aldaketa baten beharra dugu, izan ere, karga guztia emakumearen jartzen baitugu eta gizon eta emakumeen erlazioak dira aztertu beharrekoak: nola harremantzen garen, afektibilitatea eta desioak nola bideratzen ditugun, identitate sexualak, jarrera sexual positiboak eta errespetuan oinarritutako erlazioak bultzatuko dituen zentro bat behar dugu. Honetarako informazio eta aholkularitza sexologikorako bulego bat izango da aurrerantzean norbanako zein taldeekin lan egiteko.



# Tasas y locales vacíos Abriendo espacios municipales

El Ayuntamiento está trabajando para la recuperación de los espacios municipales por parte de las y los ciudadanos, tanto abaratando las tasas de uso en los edificios municipales como inventariando los locales vacíos en propiedad.

**S**in duda, una de las características de Lasarte-Oria es la vitalidad y dinamismo de su entramado social. Lasarte-Oria es un pueblo vivo, un pueblo activo con multitud de grupos que desarrollan su actividad en distintos campos.

La importancia de la cultura o el deporte trasciende, con mucho, el simple ámbito del ocio: son actividades que amplían y desarrollan nuestras potencialidades, constituyéndose en decisivos mecanismos de socialización. En definitiva, nos hacen crecer como personas y como pueblo. La función del Ayuntamiento no puede ser otra que la de mimar y potenciar esta riqueza.

En esta tarea, además de las ayudas puramente económicas, el Ayuntamiento tiene mucho que aportar, tanto facilitando el acceso a los recursos existentes, como en lo referido a dotación de infraestructuras. Se están dando pasos en

El Ayuntamiento tiene intención de realizar un registro de asociaciones solicitantes de locales y un inventario de los mismos.



ese sentido, pero no es poco lo que queda por realizar. Entre los pasos ya dados, y en los que cabe profundizar, están los dirigidos a abaratar y hacer más accesible el uso del auditorio de la Casa de Cultura para los grupos del pueblo. Otro tanto se puede decir respecto a la reglamentación del uso de la sala de Villa Mirentxu.

En el ámbito de las infraestructuras, el Ayuntamiento es muy consciente del problema que para muchos grupos supone la falta de un local en el que poder desarrollar sus actividades, es por ello que se está llevando a cabo un inventario de los locales municipales disponibles, de cara a una posterior distribución de los mismos.

## Auditorioko erabilera tasen merketzea

Antzerki, kontzertu, dantza edo antzeko emanaldietarako

### 2012ko tasak

|         |        |
|---------|--------|
| Orduko  | 292 €  |
| Eguneko | 2170 € |

### 2013ko tasak

|                                |       |
|--------------------------------|-------|
| Orduko                         | 85 €  |
| Kultur etxeko ordutegi barnean | 170 € |

### Kultur etxeko sarrerak

Kultur etxeko tasen ordenantzatik 6. puntuak kentzeak, elkarteen erabiltzaileei sarrerak kobratzeko aukera ematen die hoberiei uko egin gabe.



# Tximistarreta parkea: hirigintza partehartzailea

Herritarrok administrazioak sorturiko espazio berrietara moldatzea nahi dugu edo espazioak moldatu behar ditugu herritarren beharretara? Lasarte-Oriako Udalak argi du galdera horren erantzuna: espazioak herritarren beharretara moldatu behar dira. Horren adibide garbia da Tximistarreta parkea janzteko abiatu duen prozesua.

Ez da Lasarte-Oriako Udalaren asmakizuna. Europan eta munduan zehar hirigintza eredu berria ezartzen ari da, Hirigintza partehartzailea edo eta Espazio publikoen demokratizazioa bezala ezaguna. Bertan, artistak edo arkitektoak protagonismoa galtzen du herritarren mesedetan, finean herritarrak direlako udalerria, eta udalerriko beharrak, ongi ezagutzen dituztenak.

Horixe bera egingo du Lasarte-Oriako Udalak Tximistarreta parkeko azpiegiturak eta erabilerak zehazteko: parte-hartze prozesua zabaldu. Gaur egun Tximistarreta parkea espazio berde zabal hesitua baino ez da. Abuztuan, ordea, herritarentzat zabalduko da, eta bi hilabetetan zehar etorkizunean zein erabilera emango zaio zehatzuko da herritarren partehartzearekin.

## Herritarren nahia

Prozesua dagoeneko abian da. Udalak parkearen erabiltzaile potentzialak hamar multzotan banatu ditu. Horretarako adina, gertutasuna edota garatzen duten lan-jarduna hartu ditu aintzat –banakoak, hots, herritarrok, ere gonbidatu ditu–.

Prozesua hiru fasetan garatuko da. Lehenengo fase batean –ekaina bukaera eta uztaila hasieran, multzo bakoitzeko ordezkariek parkera gonbidatuko ditu, eta tal-



de dinamika baten bidez ingurua ezagutzeko aukera izango dute. Bigarren fasean, uztaileko bigarren hamabostaldian, elkarritzeta sakanak egingo dituzte talde guztiekin –banaka egingo dira, talde bakoitzeko bi ordezkariekin–. Bakoitzaren interesak identifikatuko dira. Eta azkeneko fasean, talde guztiak ordezkariek talde bakarrean elkartu, eta udaleko hirigintzako teknikariekin batera aurrez egindako proposamenak aztertu eta horietako batzuk lehenetsiko dira.

Herritarren iritzia jaso ondoren, irailetik aurrera proposamen guztiak mahai gainean jarri eta Udaleko bulego teknikoiak herritarren nahien araberako proiektua diseinatuko du.

Tximistarreta Parkeak hirigintza partehartzailearen lehenengo harria altzako du, eta etorkizunean herritarentzat eta herritarrekin osatutako Lasarte-Oria eraikitzen jarraitzeko konpromisoa berretsi nahi du gobernu taldeak.

**Los espacios urbanos deben adaptarse a las necesidades de la ciudadanía. Tximistarreta será un ejemplo de urbanismo basado en la participación ciudadana.**



**LASARTE-ORIA**  
UDALA

*guztioña*

## Anitzasuna, kultur aberastasuna eta partehartzea gure herriaren ezaugarri nagusi.

Udal herritarrek sorturikoa dela esaten denean, Lasarte-Oriaren kasuan filosofia edota pentsaera hutsetik harantz dagoen errealityea da. 1986. urtean sortu zen herritarren juntan eta honek izarea berezia ematen dio etengabe aldatuz doan udalerri gazte eta bizi honi.

Irudi berriak aurreko bi kontzeptuak uztartu nahi ditu; alegia, batetik, udala (erakunde gisa) eta, bestetik, herritarra (gizarte anitz, plural eta parte-hartzalea). Lasarte-Oriaren oinarria bateratzean dago; hots, herrigune ezberdinak elkartzean, natura eta industria bateratzean, kultura eta jatorri ezberdineko pertsonak elkarrekin bizitzean... Ahots eta kolore ezberdinez osaturiko udala.

Armarriak erakundearen izaera instituzionala nabarmentzen du eta, honen batera, udalaren izaera trinko eta serioa. Baino, kasu honetan, armarria ez da antzinako heraldika batetik eratorria, ez da gerrate, klase edo maila sozial edota bestelako 7 kontzeptu zaharkituetatik sorturikoa, herritarren nahi eta ahotsetik bai-zik. Horregatik, irudi berria elkarrizketa eta elkar-ulertzetik sortzen da, elkarrizketetarako erabiltzen den ikur unibertsal batetik ("bokadiloa").

La diversidad, riqueza cultural y participación, rasgos principales de nuestro municipio.

# Erreportajea



## Emozioen horma Herriko elkartea gure aberastasunaren erakusgarri

Bistakoa da Lasarte-Oria oso jatorri desberdinako biztanleok osatzen dugula, eta, neurri batean, horren arrazoia da gu edo gure familiak bidaiaiak izan direla, geltoki honetan jaistea erabaki zutenak ez oso aspaldi.

Eta, geltoki guztieta bezala, gertaera horri esker, Lasarte-Oria udalerri anitza, bizia, koloretsua eta aberatsa da, bai esperientzieta, bai planeta guztitik etorritako errealtitate eta sentimenduetan. Izen ere, gure udalerrria 70 kultura ezberdin baino gehiagotako jendeek osatzen dugu, bakoitzak bere jatorrizko hizkuntza duelarik. Pentsatzeko, sentitzeko eta irizteko makina bat modu ontzi berean.

Hauxe da, Udalak hasi duen egitasmo berri honen jatorria, aniztasun horri etekina atera eta herriko elkarteei Udaletxe berri hau irekiaz. Eraikin berri hau guztiona izan dadin bere jatorritik, eta bisitari berriek gure herriaren kolore guztiak hasieratik ikus ditzaten.

Baina, hau hasiera besterik ez da, Udal jakitun da bertan elkarte asko falta direla eta guztietara heltzeko saiakera egin nahi du, oraindik beirate asko daude betetzeko eta etorkizunean bigarren ekitalditxo bat prestatzeko asmotan dabil.

Beraz, emozioen horma, ez fisikoa bakarrik, guztiok osatzen jarraitzeko deia egiten du Udalak, aniztasunak batu gaitzan.

Es evidente que Lasarte-Oria la conformamos habitantes de orígenes muy distintos, y en cierto modo esto se debe a que nosotras, nosotros, o nuestras familias han sido viajeros que han decidido bajarse en esta estación en un pasado no muy lejano.





Mabel Natalia Predea Meza  
Komertziala 50 urte

La ciudad que me apoyó para ser emprendedora y crear mi propio negocio.



Hongchu Wu  
Sukaldaria 39 urte

Es un pueblo nuevo para mí y tengo muchas ganas de conocerlo.



Kili Diaz Tello 52urte  
Profesor de Artes marciales

Es un pueblo llano, liso y tiene todo lo que yo necesito.

## **Udalaren irudi korporatibo berria**

La nueva imagen corporativa del Ayuntamiento

## **Zer esanahi du zuretzat Lasarte-Oriak?**

¿Qué significa para ti Lasarte-Oria?

# **herritarren iritziz**



Edurne Basarte Agirre  
Administraria 48 urte

Lasarte-Oria herri alai, suhar eta geroz eta euskaldunago bat da.



Batirtze Apeztegia Bravo  
Zerbitzaria 30 urte

Aterpea eta babesia ematen digun gunea; familia , lagunak eta gure umeak.



Jesus Hernandez Murgiondo  
Logistika arduraduna 52 urte

Lasarte-Oria para mí es el Las Vegas de Gipuzkoa y del extranjero.

Asunción Jimenez Hernandez  
Langabetua 28 urte

Es un sitio bonito donde puedes pasar el rato mirando las tiendas que tiene.



Lorea Agirre Agirre  
Langabetua 44 urte

Neretako txikitatik bizi naizen lekua da eta oso arraroa egingo litzaideke hemendik alde egitea.



Antonio Ávila  
Jubilatua 68 urte

Yo soy nacido fuera, en Extremadura, pero para mí Lasarte-Oria significa todo, es mi pueblo.



Pedro Tabaran Italiano  
Komertziala 35 urte

Es un pueblo con una gran integración cultural y con oportunidades para trabajar.

Mendia eta ibaia, harria eta herria, txantxangorrión kabi xume eta kantari  
**Xumela abesbatza**

El teatro en Lasarte-Oria, es una expresión cultural para todos  
**Lan ete Lan antzerki taldea**

Herriak komertzioa biziaren du  
**Aterpea merkatari elkarrean**

La unión y el respeto intercultural  
 pilares de su crecimiento  
**Lasarte-Oriako Kirol Elkartea**

Hango eta hemengo, iragana geure  
 eginez, etorkizuna geuk egin, gaur.  
**Arrieskalleta elkarrean**

Kolore erritmo, sentimendu eta nota  
 ezberdinez osaturiko pentagrama  
**Dinbi Danba**

Lasarte-Oria, Un Pueblo de Gipuzkoa  
 con ventanas a Andalucía  
**Semblante Andaluz**

Asteburuko herria bero-bero.  
 Lasarte-Oriat HARR@ GAUDE!  
**Jalgune**

Un lugar de encuentro cultural y  
 sentimental  
**Palomo Linares elkarrean**

Iragan motza baina etorkizun luzedun  
 herria. Joven pero de gran futuro.  
**PP**

Lasarte-Oria : Herri anitza eta langilea. Bihotz euskalduna  
**EAJ**

Lats arteko herria, anitza  
**Buruntzazpi Txirridulari elkarrean**

Melodia bakarra sortzen duten ahots  
 anitzak  
**Alboka**

Donde, serenamente,  
 va transcurriendo el tiempo  
**Biyak Bat**

Sokaren antzera, herria da lotu eta  
 batzen gaituena  
**Erketz**

Adatsen hitzek egiten dute Euskara  
 zuhaitz, gure herriko Kaleetan  
**AEK**

Bakoitzak bere erritmoa izanda ere,  
 guztioi topatzen gara Lasarte-orian  
**Xpressiononk**

Lasarte-Oria magia da, ilusioa da  
**MeGaBa**

Gaztia, biziya, ezberdiña, koloresua,  
 izaera haundikua, alaia, mugitua,  
 borrokalariya, ameslariya..guria!

#### **Xirimiri elkarrean**

Goitik begiratzen zaitugu, nortasun  
 propioa lantzen laguntzen  
 diguzun bide-lagun horri  
**Zabaleta auzolan**

Lasarte-Oria, zure izaera, gure bilakaera.  
 Razón de ser y obrar  
**Danok kide**

Etxean falta eta urrun direnen herria,  
 Etxean behar ditugu.  
**Herrira**

1936an Ezkutatutako historiaren ispilua  
 osatuko dugu, herriaren islada garbia  
 ikusteko  
**Islada ezkutatuak**

LASARTE-ORIA, iturri dezberdinatik  
 edaten duen ibai bizia  
**EHbildu**

Samurraldi onenen sortzoko gunea  
**Tilin-Talan haurreskolako guraso  
 elkarrean**

Libertad, amistad, solidaridad, amor,  
 suerte, tolerancia  
**Arahma elkarreko kultural islamikoa**

Lasarte-Oria bai! Herriarekin  
 eta herriarentzat  
**Ostadar SKT**

Bizi eta eraldatzea dagokigun  
 euskal herri bat  
**Ernai**

Ttakun ttan ttakun, Lasarte-Oria euskaldun, eta ez denari lagundu diezaiogun  
**TTtakun**

Dialogante, unido, cuyas  
 asociaciones culturales y deportivas son  
 participativas  
**Buruntzazpi elkarrean**

Euskal Kultura eta euskara helburu,  
 herriari kantatzen jarraitu nahi dugu  
**Bertso eskola**

Lasarte-Oria nos parece un pueblo  
 espléndido, tranquilo y bien  
 comunicado.  
**Akugba**

**Hala ere, elkarreko guztieta iritsi  
 nahi du Udalak eta oraindik asko  
 falta dira horma betetzeko...**

Aun así, el Ayuntamiento desea  
 llegar a todas las asociaciones y  
 todavía son muchas las que faltan..

**Horrela deitzen da  
 Udalak hasi berri duen  
 proiektu berria.  
 Emozioak bilduz  
 guztioi batzea hel-  
 buru duen egitasmoa.**

Así se denomina el  
 nuevo proyecto del  
 Ayuntamiento.  
 Recopilando emociones con el objetivo de  
 unir a un pueblo

## **emozioen horma.**

Herria iturria duen ehundaka  
 igerilarik sortutako olatua  
**Buruntzaldea IKT**

Lasarte-Oria se construye con la  
 voluntad de todos los ciudadanos  
**PSE**

Lasarte-Oria: cada vecino un mundo,  
 todos juntos un pueblo  
**LOHP**

Lasarte-Oria zinezko herria  
**Okendo zinema taldea**

UTz diezaiegu gure ondorengoei  
 Lasarte-Oria eta mundu hobe bat  
**Zero Zabor taldea**

Lasarte-Oria es un pueblo acogedor,  
 sociable y solidario  
**Saharako jendea**

Sorginduta dagoen herria  
**Sorgin jaiak**

Seme-alabak euskara hazi, hezi eta  
 bizi  
**Landaberriko guraso elkarrean**

Ilusioz beteriko herritar alai eta anitizen  
 elkartasuna da Lasarte-Oria!  
**Kukuka**

Bake eta armonian bizitzeko herri bat  
**CF Texas**

# Paneles informativos: nuevos espacios comunicativos

El Ayuntamiento instalará paneles informativos en diversos puntos de la localidad con el objeto de que las y los ciudadanos y los movimientos sociales puedan intercambiar información, y, al mismo tiempo, tener un punto de encuentro a través del cual fortalecer las relaciones.

Cada día, y con mayor frecuencia, vemos que nuestras calles se llenan de papeles informando a los ciudadanos de distintas actividades. Estos carteles se sitúan en cualquier lugar y de manera indiscriminada se llenan paredes, farolas o cualquier tipo de mobiliario urbano. También es cada vez más frecuente que los ciudadanos coloquen sus propios carteles informativos o de solicitud donde mejor pueden, porque hasta el día de hoy carecen de un lugar donde situarlos.

Desde Alcaldía y el Departamento de Servicios, estimando esta creciente demanda y recogiendo el sentir de nuestros vecinos, hemos pensado que sería apropiada la colocación de paneles informativos en nuestros barrios, al objeto de que los ciudadanos pudieran hacer pública cualquier tipo de información o demanda que estimasen conveniente, en definitiva, dar una solución a una necesidad creciente.

Se trata de elementos físicos de proximidad que permitirán a los y las ciudadanas y los movimientos sociales divulgar las actividades, procesos y proyectos relacionados con el barrio, así como iniciativas y demandas de ámbito más general. Uno de los objetivos de los paneles es que sirvan para reforzar la vida comunitaria, para conocer qué se hace en cada barrio y facilitar infor-



mación a quien desee participar en las actividades.

En las reuniones "Barrio a barrio" que se han venido celebrando, se llevó esta propuesta, logrando una excelente acogida. En dichas reuniones también se preguntó a los asistentes sobre los puntos más idóneos donde colocar los paneles, admitiéndose diversas sugerencias de las opiniones aportadas.

Se pretende que cada grupo o persona coloque un único cartel, de manera que entre el mayor número de carteles posibles respetando la diversidad existente en nuestro municipio.

# Lasarte-Oriako Udala, bai esan?

Pasa dira bi urte udal-gobernu berriak orain arteko euskararen erabilera normalizatzeko egindako lana aztertzeari ekin zionetik. Orientazio berria eman behar zitzaiola ondorioztatu zuen, eta hizkuntza-politika berria abiatzeko orientabideak lantzen hasi zen Euskararen Bidegorria izeneko egitasmoa landuz.

Euskararen Bidegorriaren oinarrian udal-zereginetan euskara lehenestea da, "beti ere diskriminazio positiboa aplikatuz eta beharrakoa den egoeratan gaztelania erabiliz". Egitasmoaren zutabeak pertsonez daude osatuak: ardurdun politikoak, langileak, herritarak eta euskarako zerbitzuko kideak.

Zutabe horietako bat langileena da, eta udal-zereginetan euskara lehenesteko udaletxeko langileekin egindako lanketari erreparatuko diogu datozen lerrootan. Hain zuzen, herritarrekin aurrez aurreko harremana daukaten langileekin, hots, jendaurreko langileekin egindako lanketari.

## Sentsibilizazio saioak

Euskararen Bidegorriaren baitan, euskara zerbitzutik sentsibilizazio saioak prestatu ziren jendaurreko langileentzat. Orokorean, ohiturak eramatzen ditu dakiten modurik onenean zerbitzua ematera, baina hizkuntza aldagaiak kontuan hartu gabe. Erabileraren pertzepzioa sa-kontzuko eta erabileraren gaineko kontzientzia sortzuko bideratu ziren sentsibilizazio saioak.

Hurrengo urratsa sentsibilizazio saioetan parte hartuko zuten langileen selekzioa egitea izan zen. Departamendu ezberdinietan herriarrei harrera eman eta gestioak egiten laguntzen diharduten 20 langile hautatu ziren. Eta bi talde osatu ziren 90 minutuko bi saio egiteko, bata bestearen jarraian.



Lehenengo saioa hausnarke-tara bideratu zen bi galdera hauen laguntzarekin. Nola ikusten duzu zure burua herritarreko harremanetan, hizkuntza erabilerari dago-kionez? eta Nola ikusten dituzu herritarrak Udalarekiko harremanetan, hizkuntza erabilerari dagokionez? Bakarkako erantzunak jaso ziren, eta saioa amaitzeko guztien artean hirugarren galdera bati erantzun zioten: Gure hizkuntza portaerak eragiten al du herritarren hizkuntza portaeran? Nola?

Bigarren saioan forma eman zioten. Atera ziren ideiak kontzeptu hauen inguruan bildu ziren. Adina, berezitu egiten da zaharren eta gazteen hizkuntza aukera; gai teknikoa, zailtasun teknikoarekin lotuta, gaztelaniarako joera dago; administrazioaren irudi eraldaduna, hori da herritarrak gaztelaniaz egi-teko arrazoiak bat; euskarazko gaitasunarekiko ajeak, langileek

euskaraz egitean dituen lotsak eta konfiantza eza agertu da; etorkinak, oso gutxik dakite euskaraz baina dakienak erabiltzen du; eta lehen hitza, hura euskaraz egitearen ga-rrantzia azpimarratu dute.

Orain, helburua da mostrado-rean jartzeko dekalogoa sortzea. Dekalogo horretan hainbat go-mendio jasoko dira udal langileen eta herritarren hizkuntza ohiturak finkatzeko, non alde batetik jasoko den langileek herritarren aurrean kontuan izan behar dituenak, eta bestetik, herritarrei euskaraz egiteko gonbita luzatuko zaie.

**El objetivo:**  
Crear una política lin-güística más práctica  
y coherente

# Laburrak

## Ireki da kirol taldeek diru-laguntzak eskatzeko epea

Ekainaren 18tik aurrera, 2013ko kirol arloko diru-laguntzearako deialdia zabaldu da eta hilabeteko epea izango da hauetara aurkezteko. Diru-laguntza hauek lerro ezberdinan banatzen dira eta kirol elkartea nahiz taldeek bat baina gehiagotara aurkezteko aukera dute.

Ohiko diru-laguntzak (urtean zehar aurrera eramaten diren ohiko programak diruz laguntzeko), diru-laguntza puntualak (puntualak diren festak, kirol txapelketak edo ekimenak antolatzeko), emakumeen kirol federatua sustatzeko diru-laguntzak eta Jon Tecedor diru-laguntza (kirol gutxituak sustatzeko laguntza) dira lau lerroak.



## ¡Disfrutemos de nuestros parques este verano!

En el 2012 el Ayuntamiento de Lasarte-Oria puso en marcha la iniciativa Paso a paso Barrio a barrio y se celebraron varias reuniones en todos los barrios del municipio. En estas reuniones, el consistorio pudo recoger muchísimas propuestas, entre ellas, la referente a la limpieza de las calles y de los parques, y exactamente del problema que han creado los excrementos caninos.

El 19 de junio se celebró la primera reunión para hablar de este tema, y contó con una amplia asistencia. En ella se valoraron algunas de las propuestas del Ayuntamiento, se pudieron recoger otras tantas y se comprometieron a celebrar otra reunión.





## Okendo plazan eta Askatasuna parkean hondakinak bereizteko zaborrontziak

Erdiguneko gune hauetan, bere erabilera dela eta, zikinkeria asko sortzen da, batez ere este bukaeretan. Orain artean, baziren zaborrontziak parkean zehar sakabanaturik baina ez dute behar bezalako erabilierarik izan. Beraz, eta Udalak birziklatzearen aldeko apustu bat eginez, espazio hauek koloretako zaborrontziez hornitzea erabaki du.


Lau koloretako ontziak jarri dira: papera eta kartoiarenak, ontzi arinenak, organikoarenak eta errefusarenak. Era honetan, hemendik aurrera kalean ere hondakinak bereizteko aukera bat gehiago izango da. Azkenik, Udalak herritar guztiak birziklapenaren eta erabilera garbiaren aldeko pausuak ematera animatu nahi ditu.



El mantangorri para fomentar el uso del transporte público

## El autobus de los hospitales pasará por las paradas del municipio

A partir del 1 de julio los recorridos de dos líneas que atravesaban nuestro municipio contarán con unos cambios con el objetivo de mejorar el servicio. Estas dos líneas son aquellas que iniciaban su recorrido en Usurbil y lo finalizaban tanto en los Hospitales como en Astigarraga. Los cambios que se efectuarán son debido a la demanda de diversas asociaciones vecinales y favorecerán a las comunicaciones de Lasarte-Oria.



# AGENDA

29

ekaina  
junio



## Bereziki

Badatoz San Pedro jaiak berriro ere! Beste urte batez, ekainaren 28an hasi eta uztailaren 1era artean herri osoa zipriztinduko dugu, jaiez blai! 70 proposamen baino gehiago jaso ditugu 2013. urteko Jaietan Blai! parte hartz prozesuan, eta hauek oinarri harturik osatu ditugu festak, herritik herriarentzat.

Azpimarragarria da prozesu guzti honetan herriko elkar-teeek izan duten papera. Haien lanerako grina izugarria da azken urteotan eta jaietan ere prestutasun osoz ikusiko dituzue jo eta su Sorgin Jaiak, Ttakun, Ostdar, Aterpea,... bezalako elkartetako kideak. Udalaren izenean beraz, gure eskerrik beroenak San Pedro jaiak are parte-hartzaileagoak egiten laguntzeagatik.

San Pedro egunean izango dugu hain zuzen herriko hauetariko hiru elkartea edo kolektibo omentzeko aukera: Alboka Abesbatza, bere hogeitabosgarren urteurrenean, gure belarriak goxatzeagatik eta kantagintzarekiko zaletasuna herrian zabaltzeagatik; Beltzak rugby taldea, haien eskolarekin gaztetxoenen artean azken urteetan egindako lanagatik; eta Solaskide programa edo hobekiago esanda, Solaskideak, euskara praktikara eraman eta egunerokotasunean erabilgarri ere badela erakusteko egindako esforzuagatik.

Beraz, esateko gehigorik ez. Blusak jantzi, zapiak lepoan hartu eta gozatu festak! Gora San Pedro jaiak!

## San Pedro jaiak



argazkiak: txintxarri

Este año los homenajeados y los encargados de encender el chupín en las fiestas del pueblo serán Alboka, Beltzak Rugby taldea y Solaskide.



uztaila  
julio **04**



uztaila  
julio **21**



uztaila  
julio **26**

- 22** **Ekaina** junio  
Kontzertua concierto  
**Alboka**  
San Pedroko elizan  
ordua: 20:00
- 23** Zortzikoa  
**Dantza Erketzek**  
Udaletxe aurrean  
ordua: 21:30  
**Soka dantza**  
**San Joan Sua**  
Okendo plaza  
ordua: 22:00
- 24** **Domino**  
Zaharren egoitza  
ordua: 16:00
- 27** Biyak bat  
**Sari banaketa**  
Lounge  
Jibilatuen etxean  
ordua: 17:00
- Kontzertua concierto  
**Sorgin jaiak**  
SKAKEITAN  
UNSAIN ANAIAK  
PISTOLETAK  
Okendo plazan  
ordua: 23:00

- 28** **Ekaina** junio  
**SAN PEDROAK**  
herriko jaiak  
Hilaren 28, 29, 30 eta, 1an  
herriko kaleak  
festetan blai izango dira.
- 04** **Uztaila** julio  
**BAY PASS**  
Cine de verano  
*Okendo plazan*
- 02** **Kirol jarduerak**  
Spinning  
KONBI Spinning + Pilates  
G.A.P.  
Pilates  
Aerobik  
Body Pump  
Igerian ikasi  
Aquaerobik  
uztailaren 2tik 30era  
Udal kiroldegian
- 12** **Entre Lombrices**  
Kale antzerkia  
22:00 Okendo plazan  
*Kolektibo monstrenko*
- 13** **Landare tailerra**  
Udako ikastaroa  
Atsobakargo itsasontzian

- 16** **Oria auzoko jaiak**  
Karmengo jaiak
- 17** **ZOZOOM**  
Kale antzerkia  
12:00 isla plazan  
*Markeliñe*
- 18** **El caballero oscuro**  
**La leyenda renace**  
Cine de verano  
*Okendo plazan*
- 19** **Pronóstico**  
**reservado**  
Kale antzerkia  
22:00 Okendo plazan  
*Oihulari kloon*
- 21** **XXIX Santa Ana**  
**artisau azoka**  
*Sendoki kultur elkartea*
- 21** **Santa Ana**  
**Jaiak**  
Dantza  
Santa Ana karkaban  
ordua: 12:00
- Santa Anako Parodia**  
Okendo plazan  
ordua: 21:00

# AURTENGO UDAN GOZATU PARKEETAN!

¡ESTE VERANO DISFRUTA  
EN LOS PARQUES!



**MANTENDU GARBI PARKEAK!  
EZ UTZI BESTEENTZAKO ZURETZAKO NAHI EZ DUZUNIK**

¡MANTÉN LIMPIOS LOS PARQUES!  
NO DEJES PARA LOS DEMÁS, LO QUE NO QUIERAS PARA TI



**LASARTE-ORIA**  
UDALA - AYUNTAMIENTO